



Hondartzei dagokionez, kostaldearen ezaugarri geologiko desberdinen ugaritasuna medio, barrietate handia dago.

Baina ezagutu ditzagun sakonkiago banan-banan aztertuz.

Ondarroa

Mutrikutik abiatuta, Ondarroa dugu Bizkaiko lehenengo herria. Artibai ibaiaren itsasadarrean kokaturik dagoen herri arrantzale hau asko hazi da arrantza medio. Hedapenaren ondorioz, Ondarroako kaiak eta kaleek itsasadar estu honen padura ia estali egin dute. Mantendu diren harea-tza eta dunak bokalearen eskuinaldean dagoen Arrigorri hondartzara murriztuta geratu dira. Hondartza hau, neurri handi batean bederen, artifiziala dela esan behar da kaiko espigoiak eraikitzeak sedimentazio-korranteak aldatu egin baitzituen eta emaitza Arrigorriko oraingo hondartza da.

Bestalde hondartza horrek duen tamaina txikia eta egitura direla eta, ez duela dunak garatzeko ahalmenik eta horregatik bere balio ekologikoa nahikoa urria dela esan behar da.

Euskal Herriko kostaldea (VII): Bizkaiko hondartzak

Mikel Estonba Mintxero*

Azken bi artikuluetan Lapurdi eta Gipuzkoako hondartzen ezaugarriak eta egungo egoera ezagutzeko aukera izan genuen. Ale honetan Bizkaiko hondartzei iritsi zaie beren txanda. Euskal Herriko kostaldeari dagokionez, Bizkaia da kosta-kilometro gehien duena. Kilometro horietan guztietan dituen elementu geomorfologikoen joritasunari esker, eta baita Bizkaiko itsasbaterrean, Lapurdi eta Gipuzkoako kostarekin konparatuz, giza-eragina txikiagoa izanari esker, paraje eder ugari ikusteko aukera eskaintzen du.

M. Estonba



Ondarroako Arrigorri hondartza.

M. Estonba



Mendexako Karraspio hondartza.

Mendexa

Askoren ustez Karraspio hondartza Lekeitiokoa da, baina ez da horrela. Hondartza txiki eta zoragarri hau, Lekeitioko badian kokatuta badago ere, Mendexakoa da.

Balio ekologiarri dagokionez, esan beharra dago hondartzaren zabalera txikia dela eta, dunen garapena ez dela inoiz handiegia izan eta gainera, orain dela gutxi, hondartzaren atzealdean egin dituzten obrekin aztarna txiki horiek betirako suntsitu egin dituztela.

Lekeitio

Lea ibaiaren bokalearen beste aldean Lekeitio dugu. Neurri handi batean, herri hau, San Nikolas irla ezaugarri duen badiaren hondartza eta dunen gainean eraikita

Hondartza eta dunen babes-figurak eta beren erabilpena Euskal Herrian

Oraingoan ez dugu esplikaziorik eman, paduretan aipatutakoak baitira. (Ikus 94. alea).

NAZIOARTEKOAK

BIOSFERA-ERRESERBAK (UNESCO)

- Urdaibaiko Biosfera-erreserban bokaleko hareatzak eta Lagako hondartza eta dunak daude.

EUROPAKO BATASUNAREN CORINE PROGRAMAK: BIOTOPO PROGRAMA

- Barrika-Matxitxako lurmuturra: Astondoko hondartzak, Gorlizko dunak eta Bakioko hondartza eta dunak.
- Gernika-Mundakako itsasadarra, Ogoñoko lurmuturra: Bokaleko hareatzak eta Lagako hondartza eta dunak.

ESTATALAK

KOSTA-LEGEAK

- Hondartza guztiak itsaso lehorreko jabetza publikoaren barne daude. Horixe da Iparraldeko hondartza eta dunek duten babes bakarra.

AUTONOMIKOAK

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO GARRANTZIZKO BARRENDEGI ETA INGURUNE NATURALEN KATALOGOA

- Ondoko hondartza hauek daude katalogo horretan:
 - La Arenako hondartza eta dunak (Muskiz-Zierbena).
 - Gorlizko duna fosil eta higikorrak.
 - Lagako hondartza eta dunak (Urdaibai).
 - Santixoko hareatza eta dunak (Zumaia).
 - Inurritzako dunak (Zarautz).

LURRALDE ANTOLAKETARAKO ZUZENBIDEEN PROIEKTUA (LAZ-DOT)

- Proiektu horren babes-figura desberdinetan azaltzen diren hondartza eta dunak ondokoak dira:
 - Kontserbazio aktiboa:
 - Lagako hondartza eta dunak.
 - Babes hertsia:
 - Santixoko hondartza eta dunak (Zumaia).

Lekeitioko Isuntza hondartza.

M. Estonba



San Nikolas eta kosta artean tonboloa sortzen ari da Lekeitioko badian.

M. Estonba



dago, antzinako hareatza handi horretaz gaur egun Lumentxa mendiaren azpian dagoen Isuntza hondartza besterik ez da geratzen eta bere ezaugarriak direla medio, dunek ez duten garatu. Aipatzekoa da bestalde marea beheeratan agerian geratzen dela San Nikolas irla eta kosta lotzen duen tonboloa. Urteen poderioz, marea goratan ere, tonboloa ikusi ahal izango da, horretarako fenomeno geologikoen Euskal Herriko lekukorik argiena bihur daitekeelarik.

Ipazter

Otoio mendia eta Eako lurmuturraren artean dagoen Ogellako badian, izen bereko harrizko hondartza topa dezakegu. Inguru paregabe horrek ospe handia lortu zuen 70. hamarkadan, Iberduerok Euskal Herrian eraiki nahi zituen Hiru zentral nuklearrretako bat bertan eraikiko zuela iragartzerakoan. Gaur egun ipaztertarren hondartza ezkutua da, bere hondarra ezagatik batere eroso ez bada ere.

Ea

Lekeitiotik hamar bat kilometro-ra mendebalderantz Ea erreka itsasoratzen da, izen bereko herriaren kaleez inguratutik. Itsasadarraren estutasunak eta erreka ur-emari txikiak tamaina handiko padurarik gartzea galarazi badu ere, garai batean bertan ikus zitezkeenak erabat desagertu egin dira gaur egun, herriaren kale eta eraikuntzen azpian. Hondartza ere, oso estua da. Baina bokale osoa hartzen du marea beheeratan, baita Eako kai txikia ere. Ez dago duna-aztarnarik, baina pentsa daiteke inoiz duna txiki batzuk izan direla gaur egun hondartza gorena hartu duen herri-zatian.

M. Estonba



Ogellako hondartza (Ipazter). Leku zoragarri horretan Iberduerok zentral nuklearra eraiki nahi izan zuen.

M. Estonba

Eako itsasadar estua eta hondartza txikia.



Urdaibai

Urdaibaiko Biosferaren erreserbaren sartu gara dagoeneko eta bertan topatu ditugun lehenengo hondartzak Ibarrangelukoak dira. Lehenengoa, Ogoño lurmutur zoragarriaren babesean itsasoratzen den Laga erreka bokalean dago. Lagako hondartzak, leku paregabean aurkitzeaz gain, egitura naturala ongi mantendu du eta biodibertsitate handiko duna ditu. Dena dela eta udan bereziki, hondartza horrek eta Urdaibaiko hondartzak eta paraje guztiak orokorrean, jasaten duten tu-

rismo-presio itzelak kolokan ipintzen du gure kostaldeko erlikia horren kontserbazioa. Hori gutxi balitz gainera, administrazioko arduradunek gure patrimonio ekologiko hau babesteko neurriak hartu beharrean, dunean eta beren atzealdean eraikuntzak altxatzeko eta mota desberdinetako zerbitzuak (duta txak, zakarrontziak, mahaia, erretegiak, etab...) ipintzeko baimena eman dute, naturarekiko duten sentikortasun-eza berriro ere agerian utziz. Garrantzitsua litzateke Euskal Herrian geratzen diren azken duna-aztarna horiek babestu eta ahal

den neurrian errekuaratzeko plangintzak diseinatu eta gauzatzea. Nire iritziz, plangintza horiek bi ardatz nagusi izan beharko lituzkete. Batetik, inguru horietara gizakiaren eragina ahalik eta txikiena izateko neurriak hartu beharko liriteke eta bestalde, hondartza erabiltzen dituzten pertsonen artean informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak bultzatu beharko liriteke. Horrela bakarrik mantendu ahal izango dira itsasbazterreko ekosistema garrantzitsu horiek belaunaldi berrientzat.

Aurrerago segituz Urdaibaiko itsasadarrera iristen gara eta bertan Ibarrangeluko bigarren hondartza topatuko dugu, Laidako hondartza.

Hondartza honek eta Urdaibai bokaleko hareatza guztiek Euskal Herri osoan hemen soilik ikus daitezkeen paisajea osatzen dute. Horrela da, Euskal Herriko gainerako itsasadarrak jasan dituzten kanalizazioak direla eta, itsasoak ekarri duen materialen sedimentazioaren ondorioz, bertan zeuden barrak finkatu egin dira betirako, berezko dinamika galduz. Hori ez da gertatu Urdaibain eta horregatik Mundaka eta Ibarrangeluko hareatza horiek formaz, tamainaz eta sakoneraz aldatzen ari dira etengabe eta itsasadarren dinamika geologikoa ezagutu eta aztertzeke toki bakarrenetarikoa bihurtu da.

Dunei dagokienez, itsasadarraren egitura eta noizbehinkako dragaketen ondorioz, ez dira garatu Laidako hondartzan. Inoiz untzitegien kokapenari irtenbide egokia ematen bazaie, dragaketen arazoa konponduz, eta gizakiaren presioa kontrolatzen bada, agian dunak garatuko dira Urdaibaiko hareatzetan.

Bermeo

Matxixakoko lurmuturraren itsaslabarretan ezkutatuta Bermeoko Aritxatxu hondartza zoragarria

M. Estomba



dago. Ia soilik bermeotarrek eza-gutzen duten hondartza txiki hau paraje ederrean kokatuta dago eta bertaratzeko dituen zailtasunei esker, ez du ia gizakiaren presiorik jasaten.

Dena den, bere tamaina eta kokapena direla eta, ez ditu dunak garatzen eta horregatik ikuspegi ekologikotik ez du balio handiegirik.

Bakio

Bakioko hondartzaren jatorria Zarauzkoarena bezalakoa da. Antzinean badia zabala ireki zatekeen gaur egun hondartzaren atzealdean ikus daitezkeen lurraldeetan. Itsasoko materialen garrario eta sedimentazioak, hare metaketa batez itxiko zukeen badia hori. Horren ondorioz, hondar-tapoi horren atzean padura-egitura azalduko zukeen zingira

Ogoño lurmuturraren babesean Lagako hondartza zoragarria dago. Bertako dunak Bizkaiko azkenetarikoak dira.

Kontrolik gabeko urbanizazioak Bakioko dunak suntsitu egin ditu.

M. Estomba





Bakioko lehengo duna zoragarri eta zabaletatik argazkiko aztarna txiki horiek soilik geratzen dira.



M. Estonba



Dunaz gain, Bakioko padura ere erabat suntsituta geratu da Estepona (argazkikoa) eta Ondarre errekek kanalizatzerakoan.

M. Estonba



sortuko zen, hondartzaren zati gorenean duna eta alderdi horietako landaredi tipikoa gara zatekeen heinean.

Ondorengo aldaketak gizakiaren eskutik iritsi dira. Lehenengoak paduran gertatu ziren, hasieran nekazaritzarako lurak lortzeko asmoz eta gerora herriaren zabalpenerako, padurak lehortu eta Bakioko badian itsasoratzen diren Estepona eta Ondarre errekek erabat kanalizatu egin ziren. Azkenekoak, ordea, dunengan izan dute bereziki eragina. Turismoaren garapenak eta bilbotar ugariren bigarren etxebizitza erosteko hautatua izateak, erai-kuntzez bete ditu hondartza eta dunen zabalera-handiak. Bertan duela urte batzuk ikus zitezkeen duna handi eta egituratuak hondartzaren eskuinaldean mantendu diren aztarna txiki batzuetara murriztuta geratu dira.

Aurrerantzean, Bakioko bezalako kasuak kontutan hartu beharko dira, turismoa bultzatzea inguru horren balio naturalistiko, ekologiko eta paisajistikoa suntsitzearen sinonimo izatea nahi ez badugu bederen. Azken finean, hori potentziatu nahi dugun garapenaren aurka doa.

Astondoko badia (Gorliz-Plentzia)

Butroe ibaia itsasoratzen den lekuan, Euskal Herriko kostaldeko alderdirik zoragarrienetakoa aurkitzen da: Astondoko badia.

Bertan, badietako zirkunferentzierdi itxurako hondartza tipi-

M. Estonba



Astondoko badia Euskal Herriko ingurune ederrenetakoa da.

koa eta landaredi psammofiloaz betetako hondartza gorenazabal ikus zitezkeen urria zenean.

Gaur egun, ordea, egoera bestelakoa da. Plentziako herriaren hedapenak, Gorlizko ospitala eta bere errepidea eraikitzeak eta turismoa bultzatzeko egin diren lanek, hondartza bitan zatitzea eta badiaren muturretara mugatzeaz gain, dunengan ere, eragin handia izan dute. Hala ere, errepidea eta aparkalekuen eraginez isolatuta eta *Pinus pinaster* pinua landatu ondoren finkatuta geratu badira ere, Gorliz inguruan mantendu diren dunak Euskal Herriko zabalena direla esan behar da. Gainera, Astondoko dunak fosilizatu egin direla eta geologia-ikuspegitik Euskal Herriko punturik garrantzitsuenetakoa dela aipatu behar da.

Arrazoi horiek guztiak medio, Gorliz inguruko dunek hainbat eta hainbat lan eta ikerlanetan goraituak izan dira; baina horrek ez du, oraindik bederen alderdi zoragarri horren babesa eragin. Alderantziz, azken urte hauetan erasoak areagotu egin dira, uda partean eta gehienbat Bilbotik hurbiltzen diren turistentzat eraikitako aparkalekuak, aisialdirako alderdiak eta gainerako zerbitzuak dunetan egin baitira, hauen dinamika geroz eta gehiago galaraziz eta bere zabalera nabarmenki murriztuz.

M. Estonba



Gorlizko duna fosila.

M. Estonba



Barrikako Meñakoz hondartza.

M. Estonba

Gorlizko dunak.



Barrika

Astondoko badiaren ezker aldean Barrikako herri txikia dago. Bertako itsaslabar zoragarrien sarguneetan hiru hondartza txiki daude itsasora zabalik: Muriola, Barrika eta Meñakoz. Azkena Sopelarekin konpartitzen du. Aipatu hiru hondartzak oso txikiak dira eta hondar gutxi dute, beraz nekez aurkituko ditugu bertan dunak eta bere landaredi tipikoa. Hala ere, hondartzek eta beraiek inguratzen dituzten itsaslabarrek balio paisajistiko handiko multzoa osatzen dutela esan behar da.

Sopela

Sopelako kostaldea Barrikakoa-ren segida da eta gauza bera esan daiteke Getxokoaz, Galea lurmu-turreraino gutxienez.

Arrietara-Atxabiribil hondartza. Sopela.

M. Estonba



Euskal kostalde labarretsu honetan, itsasoaren higadura dela eta, sargune ugari ireki dira eta horietako bakoitzean hondartza txiki eta zoragarri bat aurki daiteke.

Sopelari dagokionez, hiru hondartza ditu: jadanik Barrikan aipatu dugun Meñakoz hondartza, Sopelako hondartzarik ezagunena den Arrietara-Atxabiribilekoa eta azkenik, duen kokapenarengatik "basatia" izenez ere ezagutzen den Barinatxe hondartza.

Hiruretatik, bigarrena da gizakia- ren eskutik aldaketa gehien pairatu duena, hondartzan bertan eraiki diren tabernak, errepideak eta aparkalekuaz gain, goialdeko labarretan inguru horri sekulako jipoa ematen dien urbanizazioak eraiki baitira.

Ezin dugu ahaztu bestalde, uda partean eta Getxoko hondartze- kin batera, hondartza horiek Bilbo Handiko milaka pertsonen

bisita izaten dutela, gizakia- ren presio horrek ingurune- ko natu- ran duen eraginarekin.

Hala ere, Arrietara-Atxabiribil hondartzan ikus daitezke orain- dik ere landaredi psammofiloa- ren aztarna txiki batzuk. Beren etorkizuna benetan beltza da, neurri zorrotzak lehenbailehen ez badira hartzen behintzat.

Getxo

Getxoko lurraldeetan hondartza ugari dago. Horietatik bi, Areeta- koa eta Ereagakoa, Nerbio-Ibai- zabal itsasadarrak Abraren atze- aldean duen hondar-metaketa handiaren azken arrastoak dira. Garai batean, Getxoko Areeta udalerrria, bere izenak ongi adie- razten duen moduan, Algortako itsaslabarretaraino iristen zen hareatza handi bat zen, bertan dunak eta dunetako landaredi



tipikoa (Euskal Herriko ordezkaritzarik handienetakoa) ikus zitekeelarik. Baina, bokalea erabat kanalizatzeak, portuaren hobekuntzarako eraikitako espigoiak eta instalazioak eta ingurunearen urbanizazio itzelak, Portugaleteko barra famatua desagertarazteaz gain, asfalto eta zementoarekin azpian utzi dute hareatza zoragarria. Areetako eta Ereagako hondartzak dira lehenaldi oparo horri buruz geratu diren lekuko isil bakarrak.

Getxoko gainerako hondartzak, Arrigunaga, Gorrondatxe (Azkorri) eta Sopelarekin konpartitzen duen Barinatxe hondartza, Barrika eta Sopelako hondartzak bezala, Uribe kostako Itsaslabaurren oinpean daude.

Horietako batean, Gorrondatxen (Azkorri) hain zuzen ere, hondartza txikia izan arren, dunetako landarediaren lekuko garrantzitsuak mantendu dira.

Getxoko Gorrondatxe (Azkorri) hondartzan dunetako landaredi interesgarriak ikus daitezke.

M. Estonba



Muskiz-Zierbena

Barbadun ibaiaren bokalean eta Kantabriako mugatik oso hurbil, Euskal Herriko azken hondartza dago, La Arena. Petronor enpresaren birfindegia bertan eraikitzeak itsasadar horren padura eta hondartzarengan eragina handia izan badu ere, La Arenako hondartzak duna-zabalera handiak mantendu egin ditu. Gainera, duna horitetakoko ehienak mugitu egiten dira oraindik ere dunen dinamika aztertzeko Euskal Herriko lekurik egokiena izanik.

La Arenako hondartzan Euskal Herriko duna higikor egituratuak kontserbatzen dira.

Balio handi horren froga garbia da duna horiek Euskal Autonomi Elkarteko Garrantzizko Barrendegi eta Ingurune Naturalen Katalogoan agertzea edo Lurralde Antolaketarako Zuzenbideen (LAZ-DOT) proiektuan zorrotz gordetzeko alderdi modura izendatuta egotea.

Dena den, gainerako hondartzaren modura eta uda garaian bereziki, gizakiren presio ikaragarria jasaten du eta horrek eragin handia du duna eta bertako landarediarengan, gehiegi zapaltzeak eta dunetako eraikuntzek eta zerbitzuen emendioek estres-egoera kezkarriak ezartzen baitizkie ekosistema hauek horri. Berehalako erantzuna behar du La Arenako eta orokorrean Euskal Herri osoko, dunen babesak, horrela egiten ez bada, hurrengo belaunaldiak bitxi ekologiko eta geologiko horiek ez ezagutzeko arriskua izango baitute.



* Biologoa.

M. Estonba

